

ARAUDIA

BASKONIAKO LAGUNARTE OFIZIALAK

Araudi honekin Baskoniaren Lagunarte Ofizialen Araudia erregulatu nahi da. Lagunarte bat sortzeko edo mantentzeko hauek izango dira beharrezko errekerimenduak:

1. Lagunarteko presidentea BASKONIAko bazkide edo abonatu txartelaren titularra izan behar da. Eskaera egiterakoan kondizioa hau nahitaez bete beharko du presidenteak. Bazkide edo abonatu txartelaren titular kondizioa galdu ezker, heriotza barne, lagunarteak hiru hilabete izango ditu presidente berria izendatzeko (errekerimendu berdinak bete beharko ditu).
2. Araban helbideratutako lagunartek gutxienez HOGEITA BOST kide izan behar dituzte. Gainera, kide hauen %50a BASKONIAko bazkide edo abonatu txartelaren titular izan behar dira. Behin lagunartea sortuta, kide kopuruak edo BASKONIA bazkide zein abonatu txartelaren titular kopuruak ez badu minimoarekin betetzen, lagunarteak hiru hilabete izango ditu kide gehiago lortzeko.
3. Araban helbideratuta ez dauden lagunartek 15 kide izan behar dituzte gutxienez (hauetako 5 Baskoniako abonatu izan behar dira edo behintzat 5+11 Fundazioko Bazkide Txartela izan behar dute). Gainera, kide hauek lagunartearen helbide sozialean egon behar dira erroldatuta.
4. Lagunarteak ezin izango balu errekerimendu minimo hauek bete, salbuespen bezala txosten bat entregatu beharko litzaioke klubari zergatiak ondo azalduz. Lagunarte Batzordeak lagunarte honen sartzeari onartu ezker, klubeko Zuzendaritza Batzordeak txosten hauek kontuan hartuko lituzke eta, begi onekin ikusi ezker, lagunartea onartu lezake.
5. Lagunarteak helbide soziala izan beharko du nahitaez, alokairu bitartez zein jabetza baten erabilpen eskubidea izanik. Helbide sozialean burutzen den negozioa ez badator bat Klubaren baloreekin, Klubak lagunartearen ofizialtasuna ukatu dezake.
6. Lagunarte bakoitzak egoitza eta helbide propio bat izan beharko du (ezin dezakete beste lagunarte ofizial batekin partekatu). Ez dira posta-kutxak egoitza bezala onartuko. Hori bai, lagunarteak posta-kutxa bat izan dezake korrespondentzia jasotzeko.
7. Lagunarteak Klubarekin harremanetan egongo den bozeramaile bat hautatu behar du. Bozeramaile hau lagunartearen zuzendaritza batzordean egon behar da.
8. Izendapenak eta ikurrak artikulu honetan ezarritako araudira egokitu behar dira:
 - a. Lagunartearen izendapenean BASKONIAri erreferentzia egin behar zaio eta, ahal izanez gero, lagunartearen eremu territoriala aipatu behar da. Konfusioa saihesteko helburuaz, ezin daiteke beste lagunarte ofizial baten izen berdina edo antzekoa hautatu.
 - b. Zibismoarekin, integrazio sozialarekin, kiroltasunarekin, solidaritatearekin, tolerantziarekin, etikarekin, demokraziarekin, joko garbiarekin edo BASKONIAk

gizartearekiko duen beste edozein balorerekin bat ez datozen izen edo sinbolo politikoak, xenofoboak edo arrazazkoak ez dira onartuko.

c. Izendapenean pertsonen izenak integratu nahi ezkerro, pertsona horren edo familiarren (defuntu izan ezkerro) idatzizko onarpena beharrezkoa izango da.

d. Aurretik aipatu ez den beste edozein informazio edo zalantza, klubaren interpretaziopean geratuko da.

9. BASKONIAko lagunarte ofizial izateko PROZESUA.

Prozedura hala dago ezarrita:

AURRETIKO ONARPENA

Lagunarte bezala onartua izateko, Klubari idatzizko eskaera bat egin behar zaio Klubak ematen duen fitxa betez eta ondoren Klubari fitxa hori hurrengo kopiekin entregatuz:

a) BASKONIAren sinboloen erabilpena (izendapenerako eta armarri edo "marka" propioa egiteko).

b) lagunartearen Estatutu ofizialak.

c) sortze akta. Bertan lagunartearen izena, Presidentearen bazkide zenbakia eta lagunarteen araudian ezarritako kide minimoen izena eta bazkide zenbakia (edo abonatu txartelaren titularraren zenbakia) agertu behar da.

d) Presidenteak eta zuzendaritza batzordeko bi kidek sinatutako ziurtagiria. Bertan lagunarteko kide kopurua zehaztuko da.

e) halaber, Klubarekin kontaktuan egongo den bozeramailearen izena, helbidea eta telefonoa agertu behar dira.

Behin Klubera bidalitako dokumentazio aztertuta, Klubak errekerimenduak bete diren edo ez adieraziko du eta 30 eguneko epean ebatziko da eskaera. Errekerimendu guztiak bete ezkerro, lagunarte ofizial bilakatzen duen ziurtagiria entregatuko zaio. Gauzak horrela, eskatutako izenaren eta Klubaren sinboloen erabilpena autorizatuko da.

LEGALIZAZIOA

Aipatutako tramitea behin beteta, lagunarteak inskripzioari ekingo dio 90 eguneko epean (dagozkion erregistro asoziatiboan).

Araudiko Asoziazio Erregistroan izena emanda, lagunarteak inskripzioaren kopia bat bidaliko dio Klubari -inskripzio egunetik 30 eguneko epean-.

OFIZIALIZAZIOA

Klubaren Zuzendaritza Batzordeari dagokio LAGUNARTE OFIZIAL izateko beharrezko errekerimenduak bete diren edo ez erabakitzea. Behin Lagunartea Zuzendaritza

Batzordeak ofizalduta, Klubak bere onarpena ongietorri eskutitz baten bidez helaraziko du. Gauzak horrela, Klubeko Lagunarte Ofizialen Erregistroan inskribituko da lagunartea. Honetaz gain, BASKONIAk txartel identifikatibo bat entregatuko du LAGUNARTE OFIZIAL bezala izendatu zaion zenbakiaz (antzinasuna irizpide). Txartel hau urtez urte berrituko da denboraldi hasieran, beti ere Araudiko errekerimenduak betetzen jarraitu ezker.

10. Behin BASKONIA Lagunarteen Erregistroan izena emanda, lagunarteak hainbat benefizio eta betebeharrak izango ditu.